

## ANOETAKO UDALA

Gizarte Zerbitzuen eremuko jarduerak garatzeko Elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak.

---

### 1. Xedea.

Gizarte-zerbitzuen arloan Anoetako udalerrian diharduten, edota onuradunak Anoetako herritarrak direnean edo izan daitezkeenean, elkarteek urtean zehar garatutako gizarte arloko jardueretarako dirulaguntzen kontzesioa erregulatzea da honako arau honen xedea.

### 2. Onuradunak.

Legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan inskribatuta dauden elkarteek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak, jarduerak Anoetako udaleko esparruan garatzen edo betetzen badituzte, edota beren zerbitzuak anoetarrei eskaintzen badizkiete.

### 3.- Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek ondoko betebeharrak bete beharko dituzte:

- Gizarte zerbitzuen eremuko jarduerak –aipatutakoak- burutzea.
- Jarduera burutu dela egiaztatzea.
- Anoetako Udalak egin ditzakeen finantza kontrol eta egiaztapen jarduketak onartzea.
- Helburu bererako beste administrazio edo erakunde publikotatik jasotako dirulaguntzen berri ematea Anoetako udalari.

Aipatutako betebeharrak ez baditu betetzen onuradunak, dirulaguntza ezeztatu egingo da.

### 4.- Dirulaguntzak emateko printzipio eta moduak.

Oinarri hauetako dirulaguntzak publikitate, gardentasun, partehartze, objetibotasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioen baitan emango dira.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira eta ondoko irizpideak baloratuko dira:

- Ondorengo helburuetara bideratutako jarduerak:
  - gizartean integratzeko zailtasunak dituzten herriko edozein talderen eskaerei zuzenean erantzutea.
  - herritarrengan elkartasuna bultzatzea gizartean integratzeko zailtasunak dituzten herritarren integrazioa errazteko.
  - Integratzeko zailtasunak dituzten herritarren partehartzea bultzatzea.
  - Herritarren partehartzea bultzatzea osasun eta gizarte arloko ekintza onuragarrietan.
- Jarduera betetzean onuradun izando diren pertsonen zenbatekoa.
- Aurkeztutako programazioak orohar herritarrekiko zando duen zabalkundea.
- Taldeak ere bere lanean euskararen erabilpena sustatzea kontuan hartuko da.
- Herrian zerbitzua ematea eta herritar erabiltzaile kopurua.

### 5.- Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Deialdi honek aurrikusten dituen dirulaguntzak jasotzeko eskabideak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 egunetako epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Idazkaritza Nagusian.

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

- 1) Eskatzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, N.a. eta zein entitateren ordezkari den.
- 2) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- 3) Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia.

- 4) Dirulaguntza-eskaera ( erantsirik ).
- 5) Entitate eskatzailearen organo eskudunak onartuta: jardueren xedea, programa, onuradunak eta aurrekontua.
- 6) Beste erakundetan egindako dirulaguntza eskaeren gaineko informazioa.

## 6. Prozedura ebazteko organo eskudunak.

Eskaerak gizarte zerbitzuetako batzorde informatzaileak aztertuko ditu eta ezarritako irizpideen arabera proposamen bat egingo du, kontzeptu horretarako duen aurrekontuaren barnean.

Gizarte zerbitzuetako batzordeak dirulaguntza emateko egindako proposamena ikusi ondoren, alkateak onuradunen eta bakoitzari emango zaion kopuruaren serenad erabakiko du. Ematen den kopuru osoak ez du baimendutako gastuaren kopurua gaindituko.

## 7. Entitate eskatzaileari jakinarazpena.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik, hiru hilabetetako apean onuradunei behar bezala jakinaraziko zaie Anoetako Udalak hartutako erabakia.

Ondoren Udalak ordainketa batetan gauzatuko du onartutakoa; halere, hartzaileak ezer zor badio Anoetako Udalari, honek konpentsatu egingo du zor zaiona.

## 8. Dirulaguntzaren justifikazioa.

Entitate onuradunek ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko diote Udalari:

- a) Egindako programa edo jardueraren memoria zehaztua.
- b) Diru-sarrera eta gastuen kokapena, lortutako etekina adieraziz.
- c) Burututako gastuak egiaztatuko dituzten fakturen fotokopia konpultsatuak.

Datuak, dirulaguntza jasoko duten jardueri buruzkoak bakarrik izando dira, entitate baten orotariko jarduera finantzatzen denean izan ezik. Kasu horretan, hartzaileek bere ohiko kontuen berri eman beharko dute eta hartzaileak kontabilitatea eramatera behartuta badaude, markataritza-legeriak eskatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte: balantzea, galera eta mozkinen kontua eta txostena. Txostenean jasotako diru kopurua zertan erabili den adierazi behar da.

## 9. Justifikatzeko epea.

Dirulaguntza gauzatzen denetik (ordaindu) gehienez ere 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko da aurreko atalean eskatutako dokumentazioa.

## 10. Itzulketa

Onuradunak dirulaguntza zuritzen ez badu, jasotako kopurua itzuli egin beharko du, berandutza interesak barne.

## 11. Interpretazioa.

Anoetako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

## 12. Aurrekontua, Programa eta Partida.

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa 1.000 € da, aurrekontuko 1.0000.481.310.10.01. partidari egoztekoa.

**ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN**  
SUBVENCIONES A ASOCIACIONES EN EL AMBITO DE LOS SERVICIOS SOCIALES

**ESKABIDE ORRIA / INSTANCIA DE SOLICITUD**

Año **2006** urtea

**1.- ESKAERA EGITEN DUEN ENTITATEA: / ENTIDAD SOLICITANTE**

**Elkartearen izena / Nombre de la Asociación**

**I.F.K. / C.I.F**

**Ordezkariaren izena / Nombre de la persona representante**

**N.A. / D.N.I.**

**Helbidea / Dirección**

**Udalerrria / Municipio**

**P.K. / C.P.**

**Kontu korrante zka. (20 digito) / N° cuenta corriente (20 dígitos)**

**2.- ZEIN KOLEKTIBORA XEDATUTAKO ELKARTEA DEN / COLECTIVO AL QUE SE DEDICA LA ASOCIACIÓN**

**Haurtzaroa / Infancia**

**Toxikomanoak**

**Elbarrituak / P. Minusválidas**

**Emakumezkoak / Mujer**

**Gazteria / Juventud**

**Bestelakoak / Otros .....**

**3.- ESKAERAREN HELBURUA / OBJETIVO DE LA SOLICITUD:**

**Esan zenbat eta zein aktibitate egin behar diren aurten / Indicar las diferentes actividades que se van a realizar a lo largo del actual ejercicio:**

- 1.- .....
- 2.- .....
- 3.- .....
- 4.- .....
- 5.- .....

**4.- AURREKONTUA / PRESUPUESTO:**

**Adierazi aurtengo aurrekontuaren partidak / Indicar el presupuesto actual desglosado por partidas:**

**Zertan / Concepto**

**Kopurua / Cantidad**

|       |       |
|-------|-------|
| ..... | ..... |
| ..... | ..... |
| ..... | ..... |
| ..... | ..... |
| ..... | ..... |

**GUZTIRA / TOTAL .....**

**Eguna eta sinadura / Fecha y firma**

**Inprimaki honi 5. atalean adierazitako dokumentazioa erantsi behar zaio.**

Adjuntar a la solicitud la documentación señalada en la base 5ª.